

PASAPORTE ABENTURAZALEA. GJH IBILBIDEA



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua





OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE



1 FIN
DE LA POBREZA



2 HAMBRE
CERO



3 SALUD
Y BIENESTAR



4 EDUCACIÓN
DE CALIDAD



5 IGUALDAD
DE GÉNERO



6 AGUA LIMPA
Y SANEAMIENTO



7 ENERGÍA ASEQUIBLE
Y NO CONTAMINANTE



8 TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO
ECONÓMICO



9 INDUSTRIA,
INNOVACIÓN E
INFRAESTRUCTURA



10 REDUCCIÓN DE LAS
DESIGUALDADES



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



13 ACCIÓN
POR EL CLIMA



14 VIDA
SUBMARINA



15 VIDA
DE ECOSISTEMAS
TERRESTRES



16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS



17 ALIANZAS PARA
LOGRAR
LOS OBJETIVOS

OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE



Izena: _____

Abizenak: _____

Jaiotze data: _____

Eskola: _____

Klasea: _____

Ikaslearen sinadura: _____

Afrika


Kongoko Errepublika Demokratikoa

Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) herrialde handia da, naturan aberatsa, Afrika erdigunean kokatua.

Animalia eta landare paregabe asko ditu, bai eta mineral garrantzitsuak ere, hala nola diamanteak eta urrea.

Baina natur aberastasunak izanik ere, jende askok ez du diru askorik.

Historia interesgarria du eta askotariko kultura, 200 hizkuntza baino gehiago mintzatzen baitira.



Gentilizioa: *kongoarra*

Dirua: *Libera kongoarra*

Hizkuntza ofiziala: *frantsesa*

Hiriburua: *Kinshasa*

Azalera: *2.345.000 km*

Biztanleria (2023): *100.497.180 biztanle*



AMANI JAIALDI TXIKIA

16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS



KOLIREN BIDAIA



12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES


Amerika

El Salvador

El Salvador Amerikako herrialderik txikiena da. Bertako kultura aberatsa da, natura jori-joria eta tradizio sendoak. Bertako kostaldeak mundu osoan dira ospetsuak, ezin hobeak baitira surfean aritzeko, eta paisaietan sumendiak eta mendi berdeak nabarmentzen dira.

Herritarren artean desberdintasun ekonomiko handiak badira ere, jende abegikorra da, erresilientzia handikoa, eta herrialdeari batasuna ematen diote. "Pupusas" plater tradizional bat da, El Salvadorko sukaldaritza aberastasunaren erakusgarri.

Erronka handiak baditu ere, El Salvador edertasunez eta historiaz beterik dago.



Gentilizioa: *salvadortarra / cuscatlecoa*

Dirua: *dolar estatubatuarra*

Hizkuntza ofiziala: *espainiera*

Hiriburua: *San Salvador*

Azalera: *21.041 km*

Biztanleria (2023): *6.364.943 biztanle*



LURRETIK PLATERERA

12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



EL SALVADORKO EMAKUME AITZINDARIAK



5 IGUALDAD
DE GÉNERO




Asia

Txinako herri errepublika

Txina munduko herrialderik jendetsuena da eta geografia ikusgarria dauka, hau da, mendi handi eder-ederrak, ibai emaritsuak eta ordoki zabal izugarriak.

Bertako monumentu historikoak dira nabarmentzekoak, hala nola Harresi Handia eta Hiri Debekatua, antzinako dinastien istorioen oroigarri. Ospakizun berezi-bereziak ditu; adibidez, Txinako Urte Berria, bertako kultura aberatsaren erakusgarri, segizio koloretsu eta su artifizialen bitartez.

Gainera, gauza miresgarri naturalen eta espezie paregabeen etxea da, hala nola panda erraldoiaren etxea. Txinan funtsezkoak da bai adinekoenganako errespetua, bai komunitatearen garrantzia.



Gentilizioa: *txinatarra*

Dirua: *yuan Renminbi*

Hizkuntza ofiziala: *mandarin txinera edo mandarinera*

Hiriburua: *Beijing (Pekin)*

Azalera: *9.596.900 km*

Biztanleria (2023): *1.425.671.352 biztanle*



TXINAKO ERRONKA HANDIA

11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



NIRE ESKOLA EGUNA



4 EDUCACIÓN
DE CALIDAD



Europa


Italia

Italia Europako herrialde bat da eta ezaguna da bota baten itxura daukalako mapan.

Ospetsua da, historia handia duelako, hala nola Antzinako Erromatar Inperioaren aztarnak eta Venezia hiria eder-ederra delako, kaleen ordez ubideak baititu.

Ospetsuak dira, halaber, Italiako artelanak eta arkitektura. Italiako janaria goxo-goxoa da, mundu osoan famatua, hala nola pizza eta pasta.

Horrez gain, ederrak dira zinez Italiako hondartzak eta mendi inguru zabalak, eskiatzeko aproposak.



Gentilizioa: *italiarra*

Dirua: *euroa*

Hizkuntza ofiziala: *italiera*

Hiriburua: *Erroma*

Azalera: *302.073 km*

Biztanleria (2023): *58.870.762 biztanle*



ARTE ESPLORATZAILEAK

11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



ITALIA BERDEA



15 VIDA
DE ECOSISTEMAS
TERRESTRES



Ozeania


Australia

Australia Indiako ozeanoaz eta ozeano Bareaz dago inguratua, eta geografiari begira oso desberdina alde batetik bestera, hau da, baditu hondartza zabalak, basamortuak eta oihan tropikalak.

Biodibertsitate aberatsa du zinez, eta espezie paregabeen bitokia da; haien artean daude kangurua eta koala.

Australiako kulturak bi oinarri ditu: aborigenen sustraia eta kolonizazio britainiarraren historia. Horrez gain, kiroltasuna da nabarmentzekoa, eta artea eta musika maite dituzte bereziki.

Australia, halaber, aniztasunaren eredu da, mundu zabaleko biztanleak bizi direlako, bertako hiri kosmopolitetan ikusten den bezalaxe; Sydneyn eta Melbournen, adibidez.



Gentilizioa: *australiarra*

Dirua: *dolar australiarra*

Hizkuntza ofiziala: *ingelese*

Hiriburua: *Canberra*

Azalera: *7.741. 220 km*

Biztanleria (2023): *26.638.544 biztanle*



SEINALATU

11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



OCEAN ANTZERKIA




14 VIDA
SUBMARINA



Antartika

Antartika Lurreko kontinenterik hotzena, lehorrena eta haiztsuena da, izotzak bere osoan estalia. Biztanleria iraunkorrik ez badu ere, ezta berezko kulturarik ere, mundu osoko zientifikoak bizi dira bertan aldi baterako, klima, animalien bizitza eta izotza aztertzeko.

Antartikan ez dago hiririk, baina hainbat herrialdek ikerkuntza estazioak dituzte eta, bertan, gizon-emakumeek elkarrekin lan egiten dute bai zientzian bai esplorazioan. Leku paregabe hori lagungarria zaie zientifikoei ingurumenaz gehiago jakiteko eta gure planeta nola babestu ikasteko.



Gentilizioa: *antartikoa*

Instalazio zientifikoak: 64 base

Azalera: 14.107.637 km

Aldi baterako biztanleria: 1.000 - 5.000 biztanle

Antartikak ez du herrialde guztiek aitorturiko bandera ofizialik, ez baita herrialdea, bakerako eta ikerkuntza zientifikorako kontinente bat baizik. Hala ere, "True South" izeneko bandera ez ofizial bat erabiltzen da, nazioarteko lankidetzaren eta kontinentea babestearen garrantzia irudikatzeko. Banderan Antartikaren mapa zuri bat ageri da, hondoa urdin iluna duela, bertako hotzaren eta ingurune urrunaren ikur.



URAREN GARRANTZIA

6 AGUA LIMPIA
Y SANEAMIENTO



TERMOMETRO BAT ANTARTIKAN



13 ACCIÓN
POR EL CLIMA



